


A U R K I B I D E A

ERANSKINAK	29
1. eranskina: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren banaketa pobrezia ehunekoen arabera 2008-2019 (EAPN, 2020)	29
2. eranskina: Gabezia material latza Euskal Autonomia Erkidegoan 2008-2019 (EAPN, 2020)	29
3. eranskina: Gabezia material latza neurtzeko itemak 2019. urtean (EAPN, 2020).....	30
4. eranskina: Euskal Autonomia Erkidegoan hilabete bukaerara ailegatzeko zailtasuna 2008-2019 (EAPN, 2020)	30
5. eranskina: Jardueren denboralizazioa	31
6. eranskina: Behaketa metodologia	33
7. eranskina: Hasierako eta amaierako ebaluaziorako tresna.....	34
8. eranskina: Helburu didaktikoak erdietsi diren ebaluatzeko tresna	35
9. eranskina: Jardueren eduki, denbora, baliabide materialak, garapena eta ebaluazio-irizpide nahiz -adierazleak	37
10. eranskina: Lanbideak lantzeko materiala	59
11. eranskina: Diruaren erabilera lantzeko materiala.....	60
12. eranskina: <i>Anttonen kezka</i> izeneko ipuina kontatzeko materiala	61
13. eranskina: Hasierako eta amaierako ebaluazioaren emaitzak	71
14. eranskina: Behaketa metodologiaren emaitzak	73
15. eranskina: Helburu didaktikoen lorpenaren ebaluazioaren emaitzak.....	80
16. eranskina: Eskolarako baimena.....	82
17. eranskina: Gurasoentzako eskaera	84


ERANSKINAK

1. eranskina: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren banaketa pobrezia ehunekoen arabera 2008-2019 (EAPN, 2020)




Iturria: EAPN (European Anti Poverty Network)

2. eranskina: Gabezia material latza Euskal Autonomia Erkidegoan 2008-2019 (EAPN, 2020)




Iturria: EAPN (European Anti Poverty Network)

3. eranskina: Gabezia material latza neurtzeko itemak 2019. urtean (EAPN, 2020)



Iturria: EAPN (European Anti Poverty Network)

4. eranskina: Euskal Autonomia Erkidegoan hilabete bukaerara ailegatzeko zailtasuna 2008-2019 (EAPN, 2020)



Iturria: EAPN (European Anti Poverty Network)

5. eranskina: Jardueren denboralizazioa

Azpiko egutegian sekuentzia didaktikoko ekintzak antolatzeko proposamena aurkezten da, guztira zortzi eguneko iraupena edukiko duena. Denboralizazioa aztertzerako orduan, proposamena azaroko eta abenduko hilabeteetan aurrera eramango dela aintzat hartu behar da. Izan ere, hura eskolako naiz Haur Hezkuntzako graduko ordutegien arabera ez ezik, eskolak koronabirusari dagokionez zehaztu dituen neurrien arabera ere izango da. Hori dela eta, jarduera guztiak ez dira aurrera eramango bata bestearen atzetik eta bakarrik goizetan burutuko dira. Horrez gain, *Nire altxorrik preziatuena zuretzat* izeneko ekintzan, haurrek ipuineko protagonista alaitzeko euren objekturik preziatuena kutxa batean sartuko dutenez, jarduera ahalik eta sinesgarrien izan dadin eta umeak benetan haiek maite duten objektu bati uko egiteko gai izan daitezen, aste bat pasa arte ez zaie itzuliko kutxan sartutakoa.

2020ko AZAROA						
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
<i>1.1.Aurrezagutzetan murgiltzen</i>	<i>1.2.Kazetariak argazki-makina, eta suhiltzaileak, zer?</i>	<i>1.3.Supermerkatura goaz!</i>				

2020ko ABENDUA						
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
30	1 <i>2.1. Anttonen kezka</i>	2 <i>2.2. Anttonek laguntza behar du</i>	3	4	5	6
7	8 <i>3.1. Nire altxorrik preziatuena zuretzat</i>	9	10 <i>4.1. Ikastetxetik at ere solidarioa izango naiz!</i>	11	12	13
14	15 <i>3.2. Agur zoriontsua</i>	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

6. eranskina: Behaketa metodologia

Eranskin honetan, ebaluazioa egiterako orduan erabiliko den tresna nagusia aurkeztuko da, behaketa metodologia, hain zuzen ere. Hura behaketa zientifikoa ez den arren, honen antza dauka, aldeztatik ezarrita baitago zer lortu nahi den horren bidez. Kasu honetan, helburua sekuentzia didaktiko honen bitartez *aporofobia*-ren aldeko jarreraren prebentzioa eskuratu den egiaztatzea izango da. Behaketa metodologiaren barruan mota ezberdinak daude, hura sistematizazioaren (ez sistematizaturik, sistematizaturik edo oso sistematizaturik) nahiz parte-hartzearen (ez parte-hartzailea, parte-hartzailea edo norberaren behaketa) arabera sailka daitezke. Lehenengoari dagokionez, lan honen autorea behaketa sistematizaturik oinarrituko da, aldeztatik zein datu jasoko dituen zehaztuko duelako eta informazio objektiboa ziurtatzen duten materialak erabiliko dituelako. Orobat, prestatutako behaketa ere izango dela adierazi beharra dago, eta indibiduoek euren egunerokotasunean duten jokabidea aztertuko denez, marko natural batean gauzatuko dela esan daiteke (Ramírez, 2014).

Behaketa metodologiaren parte-hartzearen harira, proposamen didaktiko honetan autorearen behaketa parte-hartzaile aktiboa izango dela aipatzekoa da, ekintzen gidatzaile gisa arituz, behaketa egiterako orduan autoreak bere rola ikasleen jardunean integratuko duelako eta gertaerekin zuzeneko kontaktua edukiko duelako. Egoera honen aurrean bi aldagai kontuan hartu behar dira; alde batetik, behatzaileak dituen igurikapenak, horiek behaketan eragina eduki dezaketelako objektibotasuna galduz, eta bestetik, errektibotasuna behatutako aldetik, norbait euren jokabideak behatzen ari dela ohartzean euren portaera aldatzen delako. Hori dela eta, premiazkoa izango da behatzaileak behaketa egiten hasi aurretik behatutako indibiduen konfiantza eskuratzeko. Dena den, kasu honetan, autoreak hori erdietsi du jada, lehenengo praktika-alditik Haur Hezkuntzako umeak ezagutzen dituelako. Horrez gain, behaketan jasoko diren emaitzak ere aipatzekoak dira, aurrerago eskuratutako datuak aurkeztuko diren arren, gehienbat hezigaien jarrera linguistikoa aztertuko dela esan beharra baitago. Azkenik, gertaerak erregistro ez-sistematizaturik baten bitartez bilduko dira (14. eranskina), deskribapen eta narrazio batean ikasleen jokabideak eta egoera modu kronologikoan azalduz (Ramírez, 2014).

7. eranskina: Hasierako eta amaierako ebaluaziorako tresna

Esku-hartze proposamenaren hasieran eta amaieran, lan honen autoreak jarraian ikus daitekeen taula beteko du hezigaien ezagutzen alderaketa bat egiteko asmoz. Horretarako, bi erantzun posible egongo dira (bai edo ez), eta jakintza hura daukan edo eskuratu duen ikasle-kopuruaren arabera, X bat kokatuko du.

	BAI						EZ					
	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24
Lanbide bat zer den daki.												
Dirua zer den eta zertarako erabiltzen den adieraz dezake.												
Lan eginez dirua irabazten dugula daki.												
Langabezia kontzeptua ezagutzen du.												
Dirurik ez edukitzearen ondorio batzuk dakizki (adib. janaria, arropa... erosi ezin izana).												
Koronabirusa kontzeptua ulertzen du.												
Pandemiaren ondorio batzuen berri jaso du.												
Pobrezia kontzeptuaren inguruko definizio bat eraikitzeke gai da.												
Pobretasun-egoera batean dauden pertsonak laguntzeko moduak ezagutzen ditu.												

8. eranskina: Helburu didaktikoak erdietsi diren ebaluatzeko tresna

Kasu honetan, sekuentzia didaktikoaren fase bakoitza bukatu ondoren, lan honetako autoreak ekintza bakoitzari dagozkion helburu didaktikoak erdietsi diren edo ez adierazteko ondorengo taula erabiliko du, hasierako nahiz amaierako ebaluazioko taulen eredu bera jarraitzen duena. Beste hitzez, X bat idatziz, autoreak zenbat ikaslek lortu duten ezarritako helburu bakoitza zehaztuko du.

	BAI						EZ					
	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24
1) Lanbideei eta diruari buruz dituzten aurrezagutzetan murgiltzea eta horiek aurkeztea.												
2) Lanbide bakoitzak betetzen duen funtzio soziala ezagutzea eta langileek horretan arituz gero dirua irabazten dutela ulertzea.												
3) Dirua zer den, zertarako balio duen, eta horren gabeziaren ondorioen inguruko ezagutzak eskuratzea.												
4) Ipuinean haurrentzat zentzua duen eta hurbila izan daitekeen egoera bat aurkeztuz, umeen ikaskuntza esanguratsua izatea.												
5) Koronabirusak eragindako egoera ekonomikoa, hots, langabezia interpretatzeko gaitasuna garatzea.												
6) Pobreziaren kausak nahiz ondorioak konprenitzea.												
7) Duintasunez bizi ahal izateko oinarrizko beharrak daudela ulertzea												

eta Giza Eskubideekiko sentikor bihurtzea.														
8) Arazo-egoera baten aurrean, elkarlanaren eta jakin-minaren bitartez ebazpen modu ezberdinak proposatzea eta horiek aurrera eramatea.														
9) Enpatia, tolerantzia eta solidaritatea bezalako balioak barneratzea pobretasun egoera batean daudenen bizipenak ulertzeko eta etorkizunera begira <i>aporofobia</i> -ren aldeko jarrerak ekiditeko.														
10) Egunerokotasunean, ikasitako balioak (enpatia, solidaritatea, errespetua, tolerantzia...) praktikan jartzea.														

9. eranskina: Jardueren eduki, denbora, baliabide materialak, garapena eta ebaluazio-irizpide nahiz -adierazleak

1. HASIERAKO FASEA

1.1. Aurrezagutzetan murgiltzen

Oinarrizko kompetentziak	<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 6.2. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ikasleek hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. c) Elkarbizitzarako kompetentzia. d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. e) Izaten ikasteko kompetentzia.
	<p>Oinarrizko diziplina-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 7.3. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. b) Matematikarako kompetentzia. c) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
Edukiak	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua (237/2015 Dekretua, 32-34. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko bizitza antolatzen duten arau kolektiboak eztabaidatzea, hausnartzea, balioestea eta betetzea. - Komunitatearen beharrianak, lanbideak eta zerbitzuak behatzea eta esploratzea.

	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua (237/2015 Dekretua, 39-42. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea (deiak egitea, hitz egiteko txanda betetzea, begietara begiratzea, etab.) eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea. 		
<p>Helburu didaktikoak</p>	<p>1) Lanbideei eta diruari buruz dituzten aurrezagutzetan murgiltzea eta horiek aurkeztea.</p>		
<p>Taldekatzea: talde handia</p>	<p>Denbora: 15 minutu</p>	<p>Lekua: Haur Hezkuntzako bost urtekoen gela</p>	<p>Baliabide materialak: materialik ez</p>
<p>Jardueraren garapenaren azalpena:</p> <p>Ekintza honen bitartez, haurrek lanbideen eta diruaren inguruan dituzten aurrezagutzak aurkeztuko dituzte; ozen hitz eginez euren ezaguerak modu logiko nahiz ulergarri batean adierazteko, gainerakoek dituzten jakintzak entzunez ezagutza berriak eraikitzeke eta guztien artean sekuentzia didaktikoan zehar jorratuko diren gaiak ulertzeko gaitasuna eskuratzen hasteko. Horretarako, korro batean eseriko dira eta irakasleak, euren neurri berean eserita, jarduera gidatuko du.</p> <p>Hizketaldiari hasiera emateko, lanbide bat zer den galdetuko die, eta erantzunen bat jasoz gero, horiez baliatuko da erantzun garatuago eta ulergarriago bat eraikitzeke. Horrez gain, adibideren bat eman dezatela eskatuko du, eta berak ere haurrentzat ezagunak nahiz ezezagunak izan daitezkeen beste lanbide batzuk aipatuko ditu. Ondoren, euren gurasoak edo tutoreak zertan egiten duten lan itaunduko die, eta umeen erantzunak baliatuz, irakasleak ogibide horiek zertan datzaten edo zein funtzio sozial betetzen duten azalduko du. Jarraian, lanaren truke dirua lortzen dutelako ondoriora iritsi arte, zertarako egiten duten lan azaltzera animatuko ditu.</p> <p>Azken galdera hura abiapuntu gisa hartuta, diruaren gaiari sarrera emango zaio. Hasteko, zer den dirua eta nolakoa den galdetuko die, eta berriro ere, guztiek emandako</p>			

<p>definizioez baliatuta bakar bat osatuko dute. Gero, irakasleak hura zertarako balio duen azaltzera bultzatuko ditu eta behin erostetak egiteko erantzun dutela, zein elementu erosten diren itaunduko zaie. Gainera, une honetan, ea zer gertatzen den dirurik ez izanez gero galdetuko du, eta modu horretan, pobrezia ekonomikoaren gaira hurbiltzen hasiko dira. Behin lanbideez eta diruaz mintzatuta, komentatutako guztiaren laburpen bat egingo da eta ikasleei galderaren bat daukaten edo ekarpen gehiagoren bat egin nahi duten itaunduko zaie.</p>	
<p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ea lanbide bat zer den eta horren adibideak emateko gai diren. - Ea dirua zer den eta zertarako balio duen erantzun dezaket. - Ea dirua lan egitearen truke jasotzen dela ulertzen duten. - Ea ezagutza berriak jasotzeko prest dauden. - Ea galderak egiten dituzten ez dakitenaren berri jasotzeko. - Ea solasaldian parte hartzen duten gizarte-arauak betez (txandak errespetatuz, ikaskideak entzunez...).

<p>1.2. Kazetariak argazki-makina, eta suhiltzaileak, zer?</p>	
<p>Oinarrizko kompetentziak</p>	<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 6.2. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ikasleek hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. c) Elkarbizitzarako kompetentzia. d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. e) Izaten ikasteko kompetentzia.
	<p>Oinarrizko diziplina-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 7.3. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.

	b) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.		
Edukiak	Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua (237/2015 Dekretua, 32-34. orr.): - Komunitatearen beharrianak, lanbideak eta zerbitzuak behatzea eta esploratzea.		
	Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua (237/2015 Dekretua, 39-42. orr.): - Elementuak sailkatzea. Kidetza-harremanak eta kideztakoak ez direnak.		
Helburu didaktikoak	2) Lanbide bakoitzak betetzen duen funtzio soziala ezagutzea eta langileek horretan arituz gero dirua irabazten dutela ulertzea.		
Taldekatzea: talde handia	Denbora: 30 minutu	Lekua: Haur Hezkuntzako bost urtekoen gela	Baliabide materialak: - Kartoi-mehe bat. - Lanbide anitzetako langileen irudiak. - Lanbide horietan erabiltzen diren elementuak.
Jardueraren garapenaren azalpena: Ekintza honetan, bai irakaslea, bai haurrak, korroan eseriko dira, eta horren erdian, hutsik dagoen kartoi-mehe handi bat edukiko dute. Gainera, bi kutxa egongo dira, bata lanbide ezberdinen (sukaldaria, erizaina, polizia, ileapaintzailea, garbitzailea, arotza, kazetaria eta suhiltzailea) irudiekin, eta bestea horietan erabiltzen diren tresnekin (erratza, orrazia, eskuburdinak...).			

Lehenik eta behin, irakasleak banan-banan ogibideen argazkiak aterako ditu, eta kartoi-mehean horiek itsasten dituen bitartean, hezigaiei bi galdera egingo dizkie: zein lanbidea den eta horretan aritzen diren pertsonen zer egiten duten. Bigarrenik, txandak errespetatuz, ikasleak banaka altxatuko dira eta ausaz tresna baten irudia hartuko dute. Ume bakoitzak hartutako tresna zein ogibideri dagokion erabaki beharko du eta kartoi-mehean itsatsi baino lehen, bere ikaskideei ados dauden galdetuko die. Horrela jarraituko dute hogeita lau elementuak lanbide bakoitzaren ondoan jarri arte. Behin irudi guztiak kokatuta, denen artean erabakiko dute zerbait aldatzea beharrezkoa den edo ez (10.eranskina).

Azkenik, aurreko jardueran lez, euren gurasoen edo tutoreen lanbidea zein den dakiten galdetuko zaie, agian ekintza honen ondorioz, lehenengoan itaun horri erantzuteko gai izan ez ziren umeak orain bai ihardetsi dezaketelako. Halaber, lan egiteko dauden arrazoiei buruz mintzatuko dira, behar egitearen truke dirua jasotzen delako ideian gehienbat arreta jarri daitekeen arren, beste kausa batzuk ere aipatuko baitira (bokazioa, norbait lagundu nahi izana...).

<p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ea lanbideen irudiak bereizten dituzten. - Ea lanbide bakoitzak betetzen duen funtzion soziala ezagutzen duten. - Ea lanbide horietan erabiltzen dituzten tresnak nahiz materialak ezagutzen dituzten eta dagokion ogibidearekin lotzeko gai diren. - Ea euren ingurune hurbilarekin harremanak ezartzen dituzten (euren gurasoek edo tutoreek zertan lan egiten duten azalduz, haiek nagusitan zer izan nahi diren aipatuz...).
---	---

1.3. Supermerkatura goaz!	
Oinarrizko kompetentziak	<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 6.2. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ikasleek hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. c) Elkarbizitzarako kompetentzia. d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. e) Izaten ikasteko kompetentzia.
	<p>Oinarrizko diziplina-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 7.3. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. b) Matematikarako kompetentzia. c) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
Edukiak	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua (237/2015 Dekretua, 32-34. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolas sinbolikoaren bidez, egoera errealak edo irudizkoak eta pertsonaiak antzeztea.
	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua (237/2015 Dekretua, 39-42. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun eta desberdintasuneko loturak egitea (berdinak dira, gehiago dira, gutxiago dira...). - Zenbakien balio funtzionala eta eguneroko bizitzan duten erabilpena behatzea eta horretaz guztiaz jabetzea. - Eragiketa errazak egitea (kentzea, gehitzea, banatzea, etab.) arazo-egoerak ebazteko.

<p>Helburu didaktikoak</p>	<p>3) Dirua zer den, zertarako balio duen, eta horren gabeziaren ondorioen inguruko ezagutzak eskuratzea.</p>		
<p>Taldekatzeta: talde txikiak</p>	<p>Denbora: 30 minutu</p>	<p>Lekua: Haur Hezkuntzako bost urtekoen gela</p>	<p>Baliabide materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bizkotxo bat egiteko osagaien irudiak, bai handiak, bai txikiak (irina, arrautzak, legamia, irina eta azukrea). - Supermerkatu baten apalategiaren irudia itsatsita daukan kartoi-mehe bat. - Kartoi-mehez egindako euro bateko eta bi eurotako txanponak. - Erosketetarako orgak.
<p>Jardueraren garapenaren azalpena:</p> <p>Ekintza honen abiapuntu nagusia jolas sinbolikoaren bitartez haurrak diruaren kontzeptura nahiz erabilerara hurbiltzea da, baita benetako beharrianak zeintzuk diren eta zeintzuk ez bereizteko gaitasuna eskuratzea ere. Horretarako, irakaslearen guraso baten urtebetetzea delako aitzakia aurkeztuta, bizkotxo bat egiteko osagaiak irudizko supermerkatu batera eroatera joango dira.</p> <p>Hasteko, irakasleak erosi beharreko osagaien zerrenda irakurri eta arbelean horien (irina, legamia, azukrea, arrautzak eta yogurra) irudi handiak itsatsiko ditu. Ondoren, lau ikasleetako sei taldeei supermerkatua irudikatuta daukan kartoi-mehe bana banatuko die. Horretan, bizkotxo erosteko beharrezkoak diren osagaiak ez ezik, beste salgai bat ere egongo da, txokolate-irabiakia, hain zuzen ere. Gainera, elementu bakoitzaren ondoan, horiei dagokien salneurria adierazita egongo da (euro bat edo bi euro). Horrekin batera, hezigaiak erosketetarako orga bat eta dirua edukiko dute. Azken honen kasuan, euro bateko eta bi eurotako txanponak edukiko dituzte, talde bakoitzeko</p>			

<p>guztira zortzi euro izango direnak. Modu horretan, txokolate-irabiakia erosiz gero, ezin izango dute bizkotxoa erosteko beharrezkoa den osagai bat eskuratu.</p> <p>Behin material guztia banatuta, jolasten hasiko dira eta banan-banan, supermerkatuko apalategian dauden osagaiak erosi behar dituzten taldean erabaki eta erosketetarako organ jarriko dituzte. Horren ondorioz, salgai bakoitzari dagokion diru-kantitatea supermerkatuko kartoi-mehean itsatsi beharko dute, euro bateko edo bi eurotako txanponak erabiliz. Kasu batzuetan, osagaia bi eurotako prezioa baldin badauka eta jada bi eurotako txanponik ez badaukate, horren ordeztu euro bateko bi txanpon erabili ditzaketelako ondorioz ailegatu beharko dira. Erosketetarako organa bete ostean, arbeleko osagaien zerrendarekin haiek erositakoa alderatu beharko dute behar dena erosi duten baieztatzeko (11. eranskina). Azkenik, talderen batek txokolate-irabiakia erosteagatik beharrezkoa zen osagai bat baldin ez badauka, guztien artean diru-kantitate mugatu bat izanda bakarrik benetan beharrezkoak diren salgaiak erosteko beharrezkoaren ideia eztabaidatuko dute.</p>	
<p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ea dirua zertarako den azaltzeko gai diren. - Ea dirua erabiltzen eta kudeatzen dakiten. - Ea beharrezkoak diren eta ez diren erosketak bereizteko ahalmena daukaten.

2. GARAPEN FASEA

2.1. Anttonen kezka

<p>Oinarrizko kompetentziak</p>	<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 6.2. artikulua):</p> <p>a) Ikasleek hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.</p>
--	--

	<p>b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.</p> <p>c) Elkarbizitzarako kompetentzia.</p> <p>d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.</p> <p>e) Izaten ikasteko kompetentzia.</p> <hr/> <p>Oinarrizko diziplina-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 7.3. artikulua):</p> <p>a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.</p> <p>b) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.</p>
<p>Edukiak</p>	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua (237/2015 Dekretua, 32-34. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Osasunari zuzenean eragiten dioten arrisku-faktoreen balioespen doitua egitea eta prebentzioko eta segurtasuneko portaerak izatea ohiko egoeretan. - Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea. - Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea. - Hurrek harreman orekatuak izatea elkarren artean. <hr/> <p>Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua (237/2015 Dekretua, 39-42. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.
<p>Helburu didaktikoak</p>	<p>4) Ipuinean haurrentzat zentzua duen eta hurbila izan daitekeen egoera bat aurkeztuz, umeen ikaskuntza esanguratsua izatea.</p>

	<p>5) Koronabirusak eragindako egoera ekonomikoa, hots, langabezia interpretatzeko gaitasuna garatzea.</p> <p>6) Pobreziaren kausak nahiz ondorioak konprenitzea.</p> <p>7) Duintasunez bizi ahal izateko oinarritzko beharrak daudela ulertzea eta Giza Eskubideekiko sentikor bihurtzea.</p>
--	--

Taldekatzeta: talde handia	Denbora: 45 minutu	Lekua: Haur Hezkuntzako bost urtekoen gela	Baliabide materialak: - <i>Anttonen kezka</i> ipuina. - Pertsonaien txotxongiloak.
--------------------------------------	------------------------------	---	---

Jardueraren garapenaren azalpena:

Ekintza honetan, umeek *Anttonen kezka* ipuinaren berri jasoko dute (12. eranskina). Horretarako, irakaslea korroan eseriko da hurrekin batera eta euren maila berean berdintasun harreman bat erakutsiz. Ondoren, erabakiko dute zein txotxongilorekin kontatuko duen istorioa, hots, Anttonen, bere lagun minaren edo bere gurasoen txotxongiloekin. Izan ere, horrek kontakizuneko gertaerak ikuspuntu anitzetatik aurkezteko parada ezin hobea eskainiko du, azaltzen den arazoaren aurrean haiek ez ezik, euren aita, ama, lagunak edo tutoreak ere nola senti daitezkeen uler dezaten. Kasu honetan, hura kontatuko den lehenengo aldia denez, irakasleak Anttonen panpina erabiltzera animatuko ditu, narrazioa haur baten perspektibatik kontatzeko egokiera izateko. Umeak ipuina entzuteko prest egon daitezen, irakasleak hurrengo esango du:

“Bolon bat eta bolon bi, isil-isilik nago ni. Txiribi-txiribita, begiak irekita, ahoa itxita eta ipurdia lurrean itsatsita”.

Jarraian, ipuina kontatzeari ekingo dio. Horren hasieran, Anttonek hurrei nola sentitzen den azaldu eta haiek nola dauden galdetuko die. Ondoren, etxean berarekin bizi diren familiako kideak aurkeztu eta umeak haiek norekin bizi diren kontatzera animatuko ditu. Horrez gain, bere gurasoei gertatu zaiena kontatzeari ekingo dio eta zeharkako modu batean, umeekin koronabirusaren eta langabeziaren esanahiez eta euren arteko loturez mintzatuko da. Gero, bere gurasoek bere urtebetetzeagatik oparirik

erosteko dirurik ez dutela kontatuko die, umeei bere familiarekin denbora pasatzea oparirik onena dela ulertaraziz eta bizkotxoko kandeletan putz egitean bere gurasoak berriro tabernan lan egitea eskatuko duela aipatuz. Horren ostean, dirurik ez izan arren, edonork medikurenera joateko eskubidea eduki beharko lukelako ideia helaraziko du gaixorik jartzen denean eta bere gurasoak oraindik lanik ez dutela azpimarratzen duenean.

Hori gutxi ez eta, bere arreba txikiaren urtebetetzea heltzen denean, umeei bera bere gurasoek lanik ez duela eta horregatik oparirik erosi ezin dizkiotela ulertzeko oso txikia dela konpreniarazi eta dirua gastatu gabe erregaluak ere egin daitezkeela erakutsiko die. Halaber, haur guztientzako kalitatezko hezkuntza baterako eskubidearen aldarrikapena ere hauteman ahal izango da Anttonek, bere gurasoek lanik ez eduki arren, eskolara doala eta bertan egiten duena azalduko dienean. Are gehiago, laguntasunaz, enpatiaz, elkarrekiko zainketaz, elkartasunaz, eta abar hitz egingo da; kontakizunaren amaieran, Araitz agertuko baita, Anttonen lagun mina, preseski. Honek bere lagunagatik oso kezkatuta dagoela esango die, eta hura hurrengo ekintzari hasiera emateko aitzakia izango da.

Amaitzeko, baliabide didaktiko honek letrarik ez edukitzeak eta bakarrik irudiez osatuta egoteak ikasle-taldearen beharren eta interesen arabera narrazioa moldatzeko aukera eskainiko du. Orobat, aipatzekoa da ipuin honen pertsonaien irudiak, bai eskuz egindako liburuan agertzen direnak, bai txotxongiloak direnak, ez estereotipatuak izatea bilatu izan dela.

<p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ea protagonistak ipuinean aurkeztutako arazoa ulertzeko gai diren. - Ea koronabirusa, horren aurrean hartu beharreko neurriak eta horren ondorioak ezagutzen dituzten. - Ea langabezia zer den eta horien ondorioak zeintzuk izan daitezkeen adierazten duten. - Ea dirurik ez edukitzearen ondorioz zer gerta daitekeen azaldu dezaketen. - Ea protagonistak aurkeztutako egoerarekin enpatia sentitzeko gai diren.
---	--

	<ul style="list-style-type: none"> - Ea gure maila sozioekonomikoak ez duela zertan pertsona batek eduki beharreko Giza Eskubideak (hezkuntza, osasuna...) baldintzatu ulertzen duten. - Ea laguntasun-jarrerak identifikatzen dituzten.
--	--

2.2. Anttonek laguntza behar du	
Oinarrizko kompetentziak	<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 6.2. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ikasleek hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. c) Elkarbizitzarako kompetentzia. d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. e) Izaten ikasteko kompetentzia.
	<p>Oinarrizko diziplina-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 7.3. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. b) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
Edukiak	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua (237/2015 Dekretua, 32-34. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean. Gainerako pertsonen laguntza-jarrerak balioestea. - Zereginak betetzeko moduak aurkitzeko interesa izatea eta gelakideek egindako proposamenak balioestea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea. - Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea. 		
	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua (237/2015 Dekretua, 39-42. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea (deiak egitea, hitz egiteko txanda betetzea, begietara begiratzea, etab.) eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea. 		
<p>Helburu didaktikoak</p>	<p>8) Arazo-egoera baten aurrean, elkarlanaren eta jakin-minaren bitartez ebazpen modu ezberdinak proposatzea eta horiek aurrera eramatea.</p>		
<p>Taldekatzeta: talde txikiak eta handia</p>	<p>Denbora: 30 minutu</p>	<p>Lekua: Haur Hezkuntzako bost urtekoen gela</p>	<p>Baliabide materialak: materialik ez.</p>
<p>Jardueraren garapenaren azalpena:</p> <p><i>Anttonen kezka</i> ipuinaren kontakizuna behin entzunda, hurrengo saioan, protagonistaren lagun minaren txotxongiloa ikasleekin korroan bilduko da umeek Antton laguntzeko moduak pentsatzen lagundu diezaioten. Izan ere, bere laguna nola lagundu ez dakiela eta ahalegindu izanagatik ere, bere kezka besarkada eta musuekin konpontzen ez dela azalduko die. Orduan, taldetan esertzeko esan eta elkarrekin konponbide ezberdinak bilatzera bultzatuko ditu.</p> <p>Lehenik eta behin, talde bakoitzean <i>brainstorming</i> bat egingo da, eta ateratako aukera guztien artean bat hautatu beharko dute. Bigarrenik, berriro korroan eseriko dira, eta banan-banan, talde bakoitzak bere ideia gainerakoekin partekatuko du, hura zertan datzan eta zergatik hautatu duten azalduz. Hirugarrenik, Anttonen lagun minak berari</p>			

<p>zer bururatu zaion aurkeztuko die eta haurrak eurak izango dira bere proposamena onartzea edo ez erabakiko dutenak. Une honetan, Araitzek hurrei Anttoni haien objektu preziatuenez betetako kutxa bat bidaltzea proposatuko die, aukeratzen duten objektua haien hain berezia bada, seguru aski protagonista animatu ahal izango duelako. Horregatik, hura hautatzeko irizpide garrantzitsuena umeentzat inportantea izatea eta balio ekonomikoaren gainera, balio sentimental handia izatea izango da. Haurrek proposamena onartuko duten edo ez jakin baino lehen, irakasleak gurasoei edo tutoreei gutun bat bidaliko die jakinaren gainean egon daitezen eta esku-hartzean parte har dezaten (17. eranskina).</p>	
<p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ea istorioko protagonistarekin empatia sentitzen duten eta berari laguntzeko prest dauden. - Ea arazo baten aurrean banaka nahiz taldeka konponbide bat bilatzeko gai diren. - Ea <i>brainstorming</i> baten ondorioz adostasun batera ailegatzeko ahalmena duten. - Ea hartzen den erabakian jarrera parte-hartzaile eta solidarioa daukaten.

3. APLIKAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-FASEA

3.1. Nire altxorrik preziatuena zuretzat	
<p>Oinarrizko kompetentziak</p>	<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 6.2. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ikasleek hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. c) Elkarbizitzarako kompetentzia.

	<p>d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.</p> <p>e) Izaten ikasteko konpetentzia.</p> <hr/> <p>Oinarrizko diziiplina-konpetentziak (237/2015 Dekretua, 7.3. artikulua):</p> <p>a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.</p> <p>b) Matematikarako konpetentzia.</p> <p>c) Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.</p>
<p>Edukiak</p>	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua (237/2015 Dekretua, 32-34. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean. Gainerako pertsonen laguntza-jarrerak balioestea. - Zereginak betetzeko moduak aurkitzeko interesa izatea eta gelakideek egindako proposamenak balioestea. - Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea. - Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea. <hr/> <p>Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua (237/2015 Dekretua, 39-42. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea eguneroko bizitzako egoeretan. - Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea (deiak egitea, hitz egiteko txanda betetzea, begietara begiratzea, etab.) eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea. - Multzoak zenbakitu gabe kuantifikatzea (asko, gutxi, etab.).

	<p>- Doitasunez zenbatzea multzo batean dauden elementuen kantitateak. Zenbaki kardinalak erabiltzea. Zenbaki-segidak adieraztea.</p>		
<p>Helburu didaktikoak</p>	<p>9) Enpatia, tolerantzia eta solidaritatea bezalako balioak barneratzea pobretasun egoera batean daudenen bizipenak ulertzeko eta etorkizunera begira <i>aporofobia</i>-ren aldeko jarrerak ekiditeko.</p>		
<p>Taldekatzea: talde handia</p>	<p>Denbora: 20 minutu</p>	<p>Lekua: Haur Hezkuntzako bost urtekoen gela</p>	<p>Baliabide materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kartoizko kutxa handi bat. - Ikasleen objekturik preziatuenak.
<p>Jardueraren garapenaren azalpena:</p> <p>Ekintza honetan, bai irakaslea, bai ikasleak, korroan eseriko dira eta erdian kartoizko kutxa handi bat edukiko dute. Orduan, bertan euren objektu preziatuenak banan-banan gordeko dituzte, eta horiek kutxan sartu baino lehen, zer den, nondik datorren, nola eta zergatik hautatu duten, eta abar azaldu beharko dutela esango die. Halaber, nork hasi nahi duen galdetuko du eta haur horretatik abiatuta ordena bat jarraituko du ezkerreko aldean dagoen umearekin jarraituz. Amaieran, zenbat objektu ekarri dituzten zenbatuko dute eta Antton horiek ikustean nola jarriko den imajinatuko dute. Gainera, erabaki ahal izango dute kutxa gelan egun gehiagotan utzi nahi duten objektu gehiagoren bat sartzeko. Azken ideia hura onartuz gero, irakasleak bera bueltatzen den egunera arte haiek kutxa hura zaintzearen arduradun nagusiak direla eta hura ez desagertzea oso garrantzitsua dela adieraziko die. Are gehiago, ikasleek haien objektua Anttoni ematea erabaki dutenez, ezin izango dute hura kutxatik atera berarekin jolasteko. Azken finean, ekintza honen bidez, frogatu ahal izango da ikasle-talde honetako bost urteko umeak beste pertsona bat zoriontsu izateko haientzat balio sentimental handikoa den zerbaiti uko egiteko gai diren edo ez.</p>			

<p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ea ekarri duten objektuaren aurkezpen bat egiteko gai diren (zer den, zergatik aukeratu duten, nork oparitu zieten, non erosi zuen...). - Ea umeek objektua bere balio ekonomikoagatik aukeratu beharrean, haientzat duen balio sentimentalagatik hautatzen duten. - Ea haientzat garrantzitsua den ondasun bati uko egiteko gai diren beste pertsona bat laguntzeko asmoz.
---	---

3.2. Agur zoriontsua

<p>Oinarrizko kompetentziak</p>	<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 6.2. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ikasleek hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. c) Elkarbizitzarako kompetentzia. d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. e) Izaten ikasteko kompetentzia.
	<p>Oinarrizko diziplina-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 7.3. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. b) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
<p>Edukiak</p>	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua (237/2015 Dekretua, 32-34. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean. Gainerako pertsonen laguntza-jarrerak balioestea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea. - Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea. 		
	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua (237/2015 Dekretua, 39-42. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab. - Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea (deiak egitea, hitz egiteko txanda betetzea, begietara begiratzea, etab.) eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea. 		
<p>Helburu didaktikoak</p>	<p>9) Enpatia, tolerantzia eta solidaritatea bezalako balioak barneratzea pobretasun egoera batean daudenen bizipenak ulertzeko eta etorkizunera begira <i>aporofobia</i>-ren aldeko jarrerak ekiditeko.</p>		
<p>Taldekatzeta: talde handia</p>	<p>Denbora: 20 minutu</p>	<p>Lekua: Haur Hezkuntzako bost urtekoen gela</p>	<p>Baliabide materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kartoizko kutxa handia hezigaien objekturik preziatuenak dauzkana. - Anttonen gutuna. - Anttonen txotxongiloa. - <i>Anttonen kezka</i> ipuina.
<p>Jardueraren garapenaren azalpena:</p> <p>Ekintza hau ahalik eta sinesgarrien izan dadin, Bilbon ostalaritza ireki ondoren, hots, abenduaren 12aren ostean aurrera eramango da. Izan ere, <i>Anttonen kezka</i> ipuinean,</p>			

protagonistak bere gurasoak taberna ireki ezin dutelako triste daudela eta horrek kezkatzen zaiola azaltzen du. Orduan, ostalaritza irekiz gero, Anttonen familiak bizi izandako galera ekonomikoa desagertzen ez den arren, umeek horretatik ateratzeko egokiera daukatela ikusiko dute.

Hasteko, irakaslea gelan sartu baino lehen, kartoizko kutxa handia ikasgelatik at geldituko da, umeek Anttonen gutunaren berri jaso aurretik euren ondasunak bueltatuko zaizkiela jakin ez dezaten. Ondoren, korroan eseriko dira eta Anttonek gutun bat bidali diela azaldu eta zer uste duten bertan jartzen duela galdetuko zaie. Behin haurren erantzunak entzunda, irakasleak Anttonen gutuna irakurtzeari ekingo dio (12. eranskina). Horretan, protagonistak haien objektu preziatuenei esker poz-pozik jarri dela, haiekin asko jolastu dela eta maitasun handiz aukeratu dituztela esango die. Gainera, berri on bat daukala aitortuko du, Eusko Jaurlaritzak berriro ostalaritza irekitzea erabaki duenez gero, bere gurasoak berriro lanera buelta daitezkelako. Orduan, Anttonek jada hain kezkatuta ez dagoela adieraziko die eta umeak animatuko ditu bera baino egoera larriago batean dauden haurrak laguntzera. Beste hitzez, pobrezia-egoera batean dauden edo horretan erortzeko zorian aurkitzen diren umei euren objektu preziatuak ematera bultzatuko ditu. Horretarako, euren objektuak itzuliko dizkiela esango die eta gutuna eskerrak emanez amaituko du.

Jarduerari amaiera ematearren, irakasleak euren ondasunak itzuli eta Antton agurtu ondoren, korroan eserita dauden bitartean, ikasleei egun hauetan euren objektu preziaturik gabe nola sentitu diren, egoera ekonomiko konplexu batean dagoen haur bat laguntzea gustatu zaien, zerbait aldatuko luketen, zer ikasi duten, eta abar galdetuko die. Orobat, itaun horietatik at, umeek nahi dituzten beste ekarpen edo iruzkin egiteko egokiera edukiko dute.

<p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ea euren objektu preziatuari benetan uko egiteko gai izan diren. - Ea egindako donazioagatik pozik eta gustura sentitzen diren. - Ea orain benetako pobrezia-egoera batean dauden umeak laguntzeko egokiera daukatela konprenitzeko gai diren.
---	--

4. OROKORTZE ETA TRANSFERENTZIA FASEA

4.1. Ikastetxetik at ere solidarioa izango naiz!

<p>Oinarrizko kompetentziak</p>	<p>Oinarrizko zehar-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 6.2. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ikasleek hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. c) Elkarbizitzarako kompetentzia. d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. e) Izaten ikasteko kompetentzia. <p>Oinarrizko diziplina-kompetentziak (237/2015 Dekretua, 7.3. artikulua):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. b) Matematikarako kompetentzia. c) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
<p>Edukiak</p>	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua (237/2015 Dekretua, 32-34. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean. Gainerako pertsonen laguntza-jarrerak balioestea. - Zereginak betetzeko moduak aurkitzeko interesa izatea eta gelakideek egindako proposamenak balioestea. - Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea. 		
	<p>Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua (237/2015 Dekretua, 39-42. orr.):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizketaldiak eta elkarrizketak abiatzeko estrategia egokiak erabiltzea (deiak egitea, hitz egiteko txanda betetzea, begietara begiratzea, etab.) eta horietan parte hartzea eta arretaz entzutea. - Multzoak zenbakitu gabe kuantifikatzea (asko, gutxi, etab.). - Zenbakien balio funtzionala eta eguneroko bizitzan duten erabilpena behatzea eta horretaz guztiaz jabetzea. 		
<p>Helburu didaktikoak</p>	<p>10) Egunerokotasunean, ikasitako balioak (enpatia, solidaritatea, errespetua, tolerantzia...) praktikan jartzea.</p>		
<p>Taldekatzeta: talde handia</p>	<p>Denbora: Ikastetxeak eskainitakoa</p>	<p>Lekua: Haur Hezkuntzako bost urtekoen gela</p>	<p>Baliabide materialak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek donazioa egiteko eramandako elikagaiak.
<p>Jardueraren garapenaren azalpena:</p> <p>Ekintza honen bitartez, haurretan benetan solidarioak izateko interesa piztu den eta beste testuinguru batzuetan behartsuenak laguntzeko prest dauden frogatuko da. Izan ere, ikastetxeak abenduan zehar Pobreen Arrebatxoak laguntzeko kanpaina batean parte hartuko du, koronabirusak eragindako ondorio ekonomikoen aurrean haurrei donazioak egiteko egokiera eskainiko dion kanpainan, preseski. Kasu honetan, umeei eskolara haiek nahi beste elikagai eramatea proposatzen zaie, behartsuenen kasuan ere pertsonen ongizatea ziurtatzeko beharrezkoa den behar baten asetzea bermatzeko, elikadurarena, alegia. Kanpaina eta dohainak egiteko denbora-tartea amaitu ostean, esku-hartze proposamen honen autorea haurrekin nahiz tutorearekin harremanetan</p>			

jarriko da euren esperientzia entzuteko eta umeetan jokabide-aldaketaren bat egon den egiaztatzeko.

<p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ea gidatutako esku-hartzetik at donazioak egiteko prest dauden. - Ea aurrez aurre ezagutzen ez dituzten pertsonak laguntzeko eta haien egoerarekin empatia sentitzeko gai diren. - Ea donazioak egiten dituztenean horiek dakartzaten ondorio positiboak kontziente diren.
---	--

10. eranskina: Lanbideak lantzeko materiala

ESKU-HARTZEA GELAN




MATERIALA



11. eranskina: Diruaren erabilera lantzeko materiala

ESKU-HARTZEA GELAN



MATERIALA



12. eranskina: *Anttonen kezka* izeneko ipuina kontatzeko materiala

ESKU-HARTZEA GELAN



NARRAZIOA

0. Aurkezpena



Antton 5 urteko haur bat da, eta oso triste dago bere gurasoek lanpostua galdu eta dirurik irabazten ez dutelako.

Anttonek zuen laguna izan nahi du eta nola sentitzen den kontatu nahi dizue.

Bere istorioa entzun nahi duzue? Tira! Ezagut dezagun Antton.


1. eszena



Kaixo lagunok! Antton deitzen naiz eta oso triste eta beldurtuta nago nire gurasoek lana galdu dutelako. Zuek nola sentitzen zarete? Pozik? Haserre? Triste? Beldurtuta? Ea denon artean guztiok pozik egotea lortzen dugun!

Nire familia ezagutu nahi duzue? Goazen ba egongelara!

2. eszena



Etxean aita, ama, amama, nire arreba Anne eta ni bizi gara. Izugarri maite ditut! Zuek norekin bizi zarete?


Amatxok eta aitatxok taberna batean lan egiten dute, baina koronabirusa dela eta hura itxi behar izan dute. Ba ote dakizue zer den koronabirusa? Jakina! Gaur egun jende asko gaixorik dago ez tul egiten, sukarrarekin, indarririk gabe... Horregatik, oso garrantzitsua da eskuak ahalik eta gehien garbitzea eta etxetik kanpo denok maskara eramatea. Zuek maskara eramaten duzue? Primeran!

Amatxo eta aitatxo kezkatuta daude langabezian daudelako. Norbaitek daki zer esan nahi duen langabeziak? Horixe! Lanik ez edukitzea eta dirurik ez irabaztea. Eta zertarako erabiltzen dugu dirua? Bai, janaria, arropa, goxokiak, jostailuak...erosteko. Nire gurasoei izugarri gustatzen zaie tabernan lan egitea. Haiek tabernatik etortzen zirenean eta egunean zehar egindakoa kontatzen zidatenean, eguneko momenturik gogokoena zen niretzat. Nik ere eskolan egindakoa azaltzen nien; egun horretan zer ikasi nuen, jolastokian zertara jolastu nintzen...Baina, lana galdu dutenetik hain triste daude, ez didatela ezta ipuinik irakurtzen ere egiten.

3. eszena

Aitatxok eta amatxok arropa gutxi erosi ahal didate eta zerbait apurtzen zaidanean, nire amamak konpontzen dit. Arropa primeran josten du eta heldua naizenean, nik ere josten ikasi nahi dut!

Arraio! Hainbeste gauzekin ez dizuet esan gaur nire urtebetetzea dela eta 5 urte betetzen ditudala. Zuek zenbat urte dituzue? Nik bezala orduan! Nire gurasoek diru askorik ez dutenez, ezin izango didate oparirik erosi, baina ziur nago primeran pasatuko dugula! Goizean, plazara joango gara. Arratsaldean, bizkotxo bat prestatuko dut amamarekin, eta afaltzeko orduan, kandeletan putz egin eta desio bat eskatuko dut. Imajina dezakezue zer eskatuko dudan? Dударik gabe, amatxok eta aitatxok euren tabernan lan egin ahal izatea. Beteko dela uste duzue?


4. eszena

Gaur goizean, amatxok eta aitatzok medikurenera eraman naute tripako min handia neukalako. Zuek medikurenera joan zarete noizbait? Zergatik? Bertara joatea gustatzen zaizue? Niri hasieran beldur pixka bat ematen zitzaidan, baina orain lasai-lasai joaten naiz sendatuko nauten medikamentuak emango dizkidatela dakidalako.

Oraindik amatxok eta aitatzok ez dute lan berririk lortu. Haiek berriro lan egitea nahi dut, baina izugarri gustatzen zait biak nirekin medikurenera etortzen direnean.

Gainera, amatxo eta aitatzok beti etxean daudenez, biekin eskolara noa, elkarrekin bazkaltzen dugu, eta nirekin jolasteko denbora gehiago daukate.

5. eszena



Medikuak etxean bi egun gelditu behar naizela esan dit. Gurasoek primeran zaintzen naute eta musu asko ematen dizkidate.

Ez zait gustatzen gaixorik egotea, eskolara edo plazara joan ezin naizelako eta nire lagunak ikusi ezin ditudalako.

Gaixorik zaudenean, gaizki sentitzen zara, ezin zara kalera atera, batzuetan sukarra edo eztula daukazu...

Gaixorik nagoenean, aitatzok eta amatxok ipuinak kontatzen dizkidate. Amamak besarkadak eman eta kantak abesten dizkit.

6. eszena



Gaur nire arrebaren urtebetetzea da, ia-ia egun berean jaio ginen. Asma dezakezue zenbat urte bete dituen? Urte bat!

Bera oso txikitxo da nire gurasoek lanik egiten ez dutela eta jostailurik erosteko dirurik ez daukatela ulertzeko. Orduan, amama eta biok etxetik geneuzkan oihalak erabiliz panpin bat sortzea erabaki dugu. Kolore ezberdinetako oihalak elkartu eta panpinaren aurpegian begiak, sudurra, ahoa...marraztu ditugu. Ilea artilea erabiliz egin dugu.

Nire arrebari asko gustatu zaio eta orain berarekin jolasten dabil. Zorionak Anne!

7. eszena



Jadanik ez nago gaixorik, sendatu naiz! Orduan, gaur amatxo eta aitatxorekin eskolara joan naiz.

Eskolara poz-pozik noa, bertan kantak abesten ditugulako, marrazkiak egiten ditudalako, hizkiak eta zenbakiak ikasten ditugulako, txangoan goazelako...

Etxera ailegatzen naizenean izugarri gustatzen zait nire familiari eskolan zer egin dudan kontatzea. Haiiek jakin-min handiarekin entzuten naute.

Abesti berriren bat erakusten bagaituzte, Anneri abesten diot eta barre egiten du.

8. eszena



Eskolan lagun asko ditut eta haiekin jolasten primeran pasatzen dut. Nire lagun minena Araitz da. Normalean, sokarekin salto egiten dugu eta arearekin gazteluak eraikitzen ditugu. Zuek zertara jolasten zarete?


Gaur, ez dut jolasteko gogo askorik. Amatxok eta aitatxok oraindik ez dute lan berririk topatu eta ezin izan dute ireki euren taberna. Hain triste nago, Araitzi gertatutakoa kontatu diodala. Berak beti zaintzen nau eta niri laguntzeko eta animatzeko prest dago. Hori da lagun onek egiten dutena, ezta?

9. eszena

(Irakasleak Araitzen txotxongiloa hartzen du)

Kaixo, lagunok! Ni Araitz naiz, Anttonen lagun mina. Oso kezkatuta nago bera triste dagoelako eta nola lagundu ez dakidalako. Normalean, besarkada bat ematen diot eta hobeto sentitzen da, baina gaur ez dut lortu.

Zerbait bururatzen zaizue? Nola lagundu ahal dugu? Badakit! Zer iruditzen zaizue kutxa bat bidaltzen badiogu zuei gehien gustatzen zaizuen objektu batekin? Marrazki bat, jostailu bat...izan daiteke. Zuek nahi duzuen. Ondo iruditzen zaizue? Primeran! Inolako zalantzarik gabe poz-pozik jarriko da!

10. Eszena

Kaixo, talde! Araitzek zuen objekturik preziatuenekin betetako kutxa bidali zidan eta ezin duzue imajinatu zein pozik nagoen orain. Gainera, nire gurasoek taberna berriro ireki ahal izan dute! Oso beldurtuta nengoen, baina azkenean egoera konpondu da, eta ezin hobeto nago. Eskerrik asko guztioi!

Orain, zuen objektuak itzuliko dizkizuet eta horrela, nire egoeran dagoen beste ume bati lagundu ahal izango diozue. Primeran pasatu dut zuekin! Laster arte lagunok!



TXOTXONGILOAK



ANTTON

ARAITZ



AMA



AITA



AGURRERAKO GUTUNA

Kaixo, lagunak!

Zer moduz zaudete? Pertsona gehiago lagundu dituzue azken bolada honetan? Ez daukat inolako zalantzarik! Gutun hau bidaltzen dizuet poz-pozik nagoelako eta zuekin gertatu zaidana partekatu nahi dudalako.

Abenduaren 12an, Eusko Jaurlaritzak ostalaritza irekitzea erabaki zuen, eta badakizue zer esan nahi duen horrek? Nire gurasoek berriro tabernan lan egin dezaketela! Oraindik nahiko kezkatuta daude hainbeste denboran zehar lan egin ez dutenez, diru asko galdu dutelako, baina alaiago daudela dirudi. Hori dela eta, ideia bat bururatu zait, hura entzun nahi duzue? Jakina! Ni orain askoz hobeto nagoenez eta zuen objektu preziatuak edukitzeak asko animatu zidanez, pentsatu izan dut momentu ezin hobe dela zuei horiek itzultzeko eta pobretasun-egoera batean dauden edo horretan erortzeko zorian dauden beste haur batzuk laguntzeko. Zer iruditzen zaizue?

Eskerrik asko beti laguntzeko prest egoteagatik! Ea laster ikusten garen eta elkarrekin jolasteko aukera daukagun. Izugarri maite zaituztet!

Besarkada handi bat,

Antton

13. eranskina: Hasierako eta amaierako ebaluazioaren emaitzak

HASIERAKO EBALUAZIOA	BAI						EZ					
	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24
Lanbide bat zer den daki.	X										X	
Dirua zer den eta zertarako erabiltzen den adieraz dezake.			X						X			
Lan eginez dirua irabazten dela daki.	X										X	
Langabezia kontzeptua ezagutzen du.	X										X	
Dirurik ez edukitzearen ondorio batzuk dakizki (adib. janaria, arropa...ezin erosi izana).		X								X		
Koronabirusa kontzeptua ulertzen du.		X								X		
Pandemiaren ondorio batzuk konprenitzen ditu.	X										X	
Pobrezia kontzeptuaren inguruko definizio bat eraikitzeko gai da.		X								X		
Pobretasun-egoera batean dauden pertsonak laguntzeko moduak ezagutzen ditu.		X								X		

AMAIERAKO EBALUAZIOA	BAI						EZ					
	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24
Lanbide bat zer den daki.					X		X					
Dirua zer den eta zertarako erabiltzen den adieraz dezake.					X		X					
Lan eginez dirua irabazten dela daki.					X		X					
Langabezia kontzeptua ezagutzen du.				X				X				
Dirurik ez edukitzearen ondorio batzuk dakizki (adib. janaria, arropa...ezin erosi izana).					X		X					
Koronabirusa kontzeptua ulertzen du.				X				X				
Pandemiaren ondorio batzuk konprenitzen ditu.				X				X				
Pobrezia kontzeptuaren inguruko definizio bat eraikitzeke gai da.					X		X					
Pobretasun-egoera batean dauden pertsonak laguntzeko moduak ezagutzen ditu.					X		X					

14. eranskina: Behaketa metodologiaren emaitzak

Atal honetan, Gradu Amaierako Lan (GrAL) honen autoreak behaketak egin ondoren osatutako narrazioak bilduko dira, modu kronologikoan egituratzen direnak eta erregistro ez-sistematizatu bat jarraitzen dutenak. Behaketa horien emaitzak adieraztearren, jarduera bakoitzari dagozkion ebaluazio-irizpideak aintzat hartuko dira.

1. HASIERAKO FASEA

1.1. *Aurrezagutzetan murgiltzen*

Esku-hartze proposamenaren lehenengo ekintza honetan, ikasleetako batzuk lanbide bat eta dirua zer diren ulertzea erdietsi zen, baita bien artean dagoen harremanera hurbiltzea ere. Haatik, jardueraren hasieran haurrek galderak ulertzeko eta erantzuteko zailtasunak eduki zituztela aipatzekoa da, nahiz eta hura aurrera joan ahala eta gaian kokatu ziren heinean, euren parte-hartzea gero eta agerikoagoa izan.

Hizketaldia hasi zenean, lanbide bat zer den erantzuterako orduan, hiruzpalau ikasle hura erantzutera animatu ziren, eta definizio bat osatu beharrean, horren adibideak aipatu zituzten. Azken horien artean polizia, medikua, suhiltzailea, irakaslea, eta abar bezalako ogibideak nabarmendu ziren. Lan honen autoreak haiek esan ez zituzten beste lanbide batzuk aipatu zituenean, umeek horietako asko identifikatu izanagatik ere, ez ziren guztiak euren buruan ikusteko gai izan. Hala ere, ogibide horiek zertan zetzaten eta zein tresna erabiltzen duten azaldu zienean, ikasleen aldetik ulermen-maila altuago bat lortu zen. Gaia euren testuinguru hurbilean kokatu zenean, hogeita lau ikasletatik hiruk euren ama, aita edo tutorea oftalmologoa, kutzazaina edo langilea zela adierazi zuten. Haatik, horietatik bakarrik bat lanbide hura zertan zetzan azaltzeko gai izan zela aitortu beharra dago, bere ama kutzazaina zela aitortu zuenean supermerkatuan produktuak saltzen zituela komentatu baitzuen.

Jarraian, jardueraren gidatzaileak euren gurasoek edo tutoreek zertarako behar egiten zuten eta horren truke zer lortzen zuten itaundu zienean, diruaz mintzatzen hasi ziren. Bakarrik ikasle batek helduek lan eginez dirua eskuratzen dutela erantzun zuen, eta zer zen dirua, zein forma zeukan eta zertarako balio zuen galdetu zitzaizenean, ume gehienek ordaintzeko erabiltzen ditugun urre koloreko txanponak direla azaldu zuten. Horren

ostean, irakasleak haiek non eta zer erosteko erabiltzen duten dirua esatera bultzatu zituenean, gehien errepikatu ziren erantzunak janaria supermerkatuan, jantziak arropa dendan eta jostailuak jostailu-dendan izan ziren. Ondoren, dirurik ez edukiz gero zer gertatzen den galdetu zitzaizenean, batek modu orokor batean ezer ez daukazula esan zuen arren, beste batzuk jan ezin duzula eta ezer erosi ezin dezakezula zehaztu zuten. Horrek pobrezia ekonomikoaz mintzatzea ekarri zuen berekin, ikasle batek dirurik ez baduzu pobrea zarela adierazi baitzuen.

Amaieran, komentatutako guztiaren laburpen bat egiterako orduan, lanbideei eta diruari buruzko nozio batzuk eskuratzen hasi zirela antzeman izan zen. Noski, oraindik horien inguruko definizioak askoz gehiago doitu behar ziren, baina behintzat jardueraren hasierarekin alderatuta, hezigai gehiago lanbideen eta diruaren erabileraren adibideak eman zituzten; ezagutza berriekiko jakin-mina adieraziz eta solasaldian hitz egin zuten ikaskideak entzun zituztela erakutsiz.

1.2. *Kazetariak argazki-makina, eta suhiltzaileak, zer?*

Kazetariak argazki-makina, eta suhiltzaileak, zer? izeneko ekintzak guztira gutxi gorabehera 30 minutu iraun zituen eta eraginkor samarra izan zen; alde batetik, galdetzen zenaren inguruko ezagutzak partekatuz erantzuten ez zutenek ezaguera berriak jaso zituztelako, eta bestetik, inor erantzunik emateko gai izan ez zenean, guztien artean zein izan zitekeen hautaketarik egokiena adostu zutelako.

Koronabirusak bai irakasleak, bai ikasleak, espazioan zuten kokapenean eragindako egokitzapenak eginda zeudela, jardueraren gidatzaileak ogibideen irudiak erakutsi zizkien eta guztiak identifikatzeko gai izan ziren arren, zailtasunak eduki zituzten kazetaria, arotza eta ileapaintzailearen lanbideen irudiak ezagutzeko, euren testuinguru hurbilean horiek ez baitziren izendatzen hainbeste. Banan-banan argazkiak kartoi-mehean kokatu ostean, jardueraren bigarren atalera igaro ziren, eta horretan, irakasleak ikasle bakoitzari ogibideren bati dagokion tresna bat eman zion ausaz. Kasu honetan, zalantzak eduki zituzten mikrofonoa, kamera, egunkaria eta xanpua euren lanbideekin lotzerako orduan. Irudiak kartoi-mehean itsatsi ondoren, irakasleak denen artean zerbait aldatzea beharrezkoa bazen pentsatzera bultzatu zituen, eta hurrek horrela utzi nahi zutelara adierazi zuten, tresna guztiak dagozkion lanbidearen ondoan jarri baitzituzten.

Amaitzeko, aurreko jardueran lez, irakasleak euren gurasoen edo tutoreen lanbidea zein zen galdetu ziren, eta kasu honetan, laupabost ikasle gehiagok ihardetsi zuten. Jarraian, lan egiteko dauden arrazoiei buruz mintzatzen hasi ziren, eta medikuek pertsonak sendatu nahi dituztelako eta irakasleek haurrei ezagutza berriak irakatsi nahi dietelako lan egiten zutela aipatu izan zen. Haatik, arrazoi bokatiboak ez ezik, ekonomikoak ere agertu ziren, ume bik lanera joanez dirua irabazten zela adierazi baitzuen. Azken baieztapen horrek eztabaida ekarri zuen berekin, ume batek dirua kutxazain automatikotik eskuratzen zela azaldu zuelako. Horrenbestez, aipatzekoa da orokorrean haur guztiak lanbideen irudiak bereizteko, lanbide horiek daukaten funtzio soziala identifikatzeko, bakoitzari dagozkion tresnak esleitzeko eta ikasitakoa euren ingurune hurbilarekin lotzeko gai izan zirela.

1.3. Supermerkatura goaz!

Ekintza honi esker, haurrak jolas sinbolikoaren bitartez diruaren kontzeptua garatzeko eta horren erabilera nolakoa den ulertzeko gai izan ziren, benetako beharrianak ziren erosketak eta ez zirenak bereiziz eta jaso zuten diru-kantitatea kudeatuz. Gainera, hasiera-hasieratik, bizkotxo bat prestatzeko osagaiak supermerkatura erostera joatea proposatu zen unetik, euren jarrera parte-hartzailea izan zen. Jarduera honetan, umeak taldetan antolatutako mahaietan egon ziren eta jolasak guztira 30 minutu iraun zituen.

Jardueran zehar, bi arazo nagusi egon ziren: alde batetik, euro bateko bi txanponak eta bi eurotako txanpon batek balio berdina zeukatela uste izana, eta bestetik, sei taldetatik hiru taldetan ikasle batek txokolate-irabiakia erosi nahia izana. Gainera, txanponen harira, batzuk txanpon gehiago edukitzeak diru gehiago edukitzeak esan nahi zuela uste izan zuten. Hala ere, talde lanean arituz, bi egoera horiek ebatzi ziren, txanponak erabiltzen zekiten hezigaiek besteei nola erabili erakutsi, eta diru-kantitate mugatuaz kontziente zirenek besteei txokolate-irabiakia erosiz gero bizkotxoa egiteko beharrezkoak ziren osagai guztiak erosterik edukiko ez luketela azaldu zitelako.

Beraz, ikasleek salgai bakoitzaren ondoan adierazitako salneurriak eta zeukaten diru-kantitatea aintzat hartuta nahiz eragiketa matematikoak eginda, talde guztiak bizkotxoa prestatzeko osagaiak erosteko gai izan zirela aipatzekoa da. Are gehiago, nahiz eta txokolate-irabiakia tentagarria izan, elkarrekintzaren bitartez beharrak nahien gainetik jartzera ailegatu ziren. Laburbilduz, dirua zertarako balio duen azaltzeko, hura erabiltzeko nahiz kudeatzeko eta beharrezkoak ziren eta ez ziren erosketak bereizteko ahalmena trebatu eta eskuratu zuten jarduera honetan.

2. GARAPEN FASEA

2.1. *Anttonen kezka*

Koronabirusa eta horrek ekarritako distantzia-neurriengatik *Anttonen kezka* ipuina korro batean eserita kontatzea ezinezkoa izanagatik ere, ekintzak iraun zituen 45 minutuan ikasleek etengabe parte-hartzeko eta ekarpenak egiteko parada eduki zuten. Gainera, haurrek ipuina Anttonen txotxongiloarekin kontatzea aukeratzeak ikasleek istorioa haur baten ikuspuntutik entzutea eta bere lekuan jartzeko erraztasun handiagoa edukitzea eragin zuen. Horri esker, gurasoak langabezian egoteak eragindako desorekaren ondorioen aurrean ume batek nola kudeatzen dituen bere emozioak ikusi zuten, baita haurtzaroan noizean behingo aukera eza nola bizi izaten den ere.

Ekintza guztietatik honek *aporofobia* ekiditeko nahiz desagerrarazteko bidean ekarpen gehien egin zituena izan dela baieztatu daiteke. Lehenik eta behin, ipuinaren hasiera-hasieratik, modu xume batean umeak pobrezia ekonomikoa bizi duen pertsona batek dituen emozioetara hurbildu ziren. Bigarrenik, protagonistaren familiaren aurkezpena aitzakia gisa hartuta, umeen ekarpenek familia mota anitzak utzi zituzten agerian, hala nola, familia nuklear funtzionalak, guraso bakarrekoak, berreraikiak eta harrera-familiak. Horrekin batera, kontakizuna aurrera joan ahala, Anttonek euren gurasoei gertatu zaiena azaltzeak langabezia eta koronabirusaren kontzeptuak berekin ekarri zituen. Lehenengoari dagokionez, ikasleek ez zekiten zer esan nahi zuen, eta orduan, irakasleak txotxongiloaz baliatuta lanik ez edukitzea adierazten zuela azaldu zien. Bigarren kontzeptuaren inguruan, berriz, horren esanahiaren inguruko azalpen gehiago eman zituzten umeek: hirian koronabirusa dagoela eta gaixorik ez jartzeko maskara jartzen dugula, birus bat dela, hiltzen gaituela, kalean dagoela, eta abar.

Are gehiago, protagonistaren nahiz bere arrebaren urtebetetzez baliatuta, dirurik gabe ere erregaluak egin daitezkeela eta balio ekonomikoaren gainetik balio sentimentala egon beharko litzatekela ikasi zuten umeek. Hori gutxi ez eta, kontakizunean zehar egoera ekonomikoa dena delakoa izanda pertsona guztiek eduki beharreko eskubideetako bi ezagutu eta barneratu zituzten, osasun-zerbitzuetarako eta kalitatezko hezkuntza baterako eskubideak, zehazki. Azkenik, laguntasunaz, enpatiaz, elkarrekiko zainketaz, elkartasunaz, eta abarrez ere hitz egin zen eta ikasleek laguntasun-jarrera egokien zenbait

adibide aipatzeari ekin zioten; hala nola, jostailuak eta panpinak partekatzea, bat erortzen denean besteak altxatzen laguntzea, bat triste dagoenean besteak besarkada bat ematea, eta abar.

Horrenbestez, esan beharra dago Haur Hezkuntzako bost urtekoen gelako haurrak kontakizunean aurkezteko arazoa ulertzeko gai izan zirela, umeak pobreziaz, bere kausez, bere ondorioez eta dakartzan ondorio nahiz bizipenez hausnartu baitzuten. Izan ere, gaia konplexua izanagatik ere, haurrei horren inguruko galderak sortu zaizkiela eta horien erantzuna jaso nahi zutela behatu izan zen.

2.2. Anttonek laguntza behar du

Anttonek laguntza behar du jarduerak 30 minutuko iraupena eduki zuen, eta honetan ere autoreak zehaztutako helburua erdietsi zen, ikasleek langabeziagatik protagonista bizi izandako desorekaren aurrean Antton pozteko nahiz animatzeko moduen bilaketan aurrea hartzeko gogoak izan baitzituzten.

Haurrek talde txikitan nahiz talde handian egindako *brainstorming*-etan gehien errepikatu ziren proposamenak protagonistarekin jolastera joatea, haien jostailuak ematea eta bere aita eta ama beste lan bat topatzen laguntzea izan ziren. Horiek entzun ondoren, Anttonen lagun minak bigarren proposamena oinarri hartuta berari bururatutakoa azaldu eta umeek balio ekonomikoaren gainetik balio sentimentala zituzten objektuak protagonistari bidaltzea aukera ona izan zitekeela adierazi zuten.

Beraz, ekintza honen bitartez, ikasleek protagonistarekiko enpatia sentitu eta bera laguntzeko moduen bilaketan aurrea hartzeko gogoak izan zituztela, taldean besteen proposamenak entzuteko eta adostasun batera ailegatzeko gai izan zirela, eta hartutako erabakian jarrera parte-hartzailea eta solidarioa izan zutela antzeman izan zen.

3. APLIKAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-FASEA

3.1. *Nire altxorrik preziatuena zuretzat*

Nire altxorrik preziatuena zuretzat izeneko ekintzak 20 minutuko iraupena izan zuen, eta helburua erdietsi zela begi-bistakoa izan zen, ikasleek ekarritako objektuek balio ekonomikoa baino, haientzat balio sentimentala zeukatela eta beste haur bat laguntzeko horiei uko egiteko gai izan zirela hauteman izan zelako.

Ekarritako objektuen artean panpinak, ipuinak eta pelutxeak nabarmendu zirela aipatzekoa da, eta horiek aurkezterako orduan, panpinak nahiz pelutxeak nola deitzen ziren eta ipuinak zertan zetzaten adierazi zuten. Gainera, horiek haientzat hain garrantzitsuak izatearen arrazoi nagusiak aiton-amonek edo gurasoek oparitu zizkietela, gurasoekin batera horiek irakurtzen zituztela, txiki-txikitatik horiek zeuzkatela, horiekin jolasten primeran pasatzen zutela, kontatzen zen istorioa gustatzen zitzaizela, eta abar izan ziren. Amaieran, zenbat objektu ekarri zituzten zenbatu zutenean, bakarrik ikasle-taldearen erdiak kutxan zerbait sartu zuela konturatu ziren, eta objekturik ekarri ez zutenek besteek ekarritakoa ikustean, triste nahiz haserre jarri ziren haiek Antton lagundu ezin zutelako eta parte hartu nahi zutelako. Hori dela eta, kutxa gelan egun gehiagotan uztea erabaki izan zen, eta irakasleak bera bueltatzen zenera arte kutxa zaintzeko ardura esleitu zien.

Hortaz, objektua ekarrita edo ez, bost urteko ume guztiak beste pertsona bat zoriontsu izateko haientzat balio sentimental handikoa zen zerbaiti uko egiteko gai zirela frogatu izan zen. Gainera, ekarritako objektua aurkezteko gaitasuna eduki zuten eta balio sentimentala ekonomikoaren gainetik jartzeko gauza izan ziren.

3.2. *Agur zoriontsua*

Jarduera hau abenduaren 15ean aurrera eraman izanak ikasleentzat hura erabat sinesgarria izatea eragin zuen, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 12tik aurrera Bilboko ostalaritza irekitzeko baimena eman zuelako eta Anttonen kezka nagusia bere gurasoek taberna ireki ezin izatea zelako. Orduan, ekintza honetan ere helburua erdietsi zen, ikasleek euren objektu preziatuari benetan uko egiteko gaitasuna izan zutela behatu zelako.

Irakaslea gelatik sartu bezain laster, haurrek Antton nola zegoen eta bere objektuak gustatu zitzaizkion galdetu zioten, eta berak protagonistak idatzitako gutun bat ekarri zuela adierazi zienean, urduri eta alai jarri ziren. Gutuna irakurtzen amaitu ondoren, gehienek mezua ulertu zutela antzeman izan zen, orain protagonistaren gurasoak berriro behar egiten zutela, Antton horregatik pozik zegoela eta haien ondasunak egoera ekonomiko larri batean zeuden haurrak lagundu zitzaten bueltatuko zizkiela aitortu baitzuten. Antton agurtu ostean irakasleak euren ondasunak itzuli zizkienean, gehienek besarkatu egin zituzten eta faltan bota zituztela adierazi zuten, horiek benetan haientzat balio sentimental bat zeukatela erakutsiz. Horrekin batera, haurrek protagonistari laguntzea izugarri gustatu zitzaie eta berriro egingo luketela aitortu zuten. Honenbestez, baieztatu daiteke bost urteko umeak egindako donazioagatik pozik eta harro sentitu zirela eta benetako pobrezia-egoera batean dauden haurrak laguntzeko egokiera zeukatela konprenitu zutela.

4. OROKORTZE ETA TRANSFERENTZIA FASEA

4.1. *Ikastetxetik at ere solidarioa izango naiz!*

Esku-hartze proposamena bukatu ondoren, lan honen autorea ikastetxera itzuli zen Pobrean Arrebatxoak laguntzeko kanpainan ikasleen parte-hartzea nahiz bizipenak nolakoak izan ziren jakiteko, eta umeak sekuentzia didaktikotik at donazioak egiteko prest zeudela baieztatu izan zuen. Gelan sartu bezain laster, aldez aurretik inolako galderarik egin gabe, kamisetan zeuzkaten pegatina batzuk erakutsi zizkioten, kanpainan parte hartu zutela adierazten zutenak. Gainera, umeek eurek ilusioz beteta egin zuten ekarpenaren berri eman nahi izateak, donazioak egin zituztenean horiek zekartzaten ondorio positiboez kontziente zirela agerian utzi zuen. Izan ere, haien eskaintako elikagaiek koronabirusa dela eta egoera ekonomiko konplexu batean dauden pertsonen lagundu zitzaketela konprenitu zuten. Era berean, aurrez aurre ezagutzen ez zituzten pertsonekin enpatia sentitzeko gai zirela eta edonon laguntzeko prest zeudela antzeman izan zen. Laburbilduz, esku-hartze proposamen honen bitartez, ikasletan solidarioak izateko interesa piztu zela eta ikastetxetik at dauden testuingurutan behartsuenak laguntzeko prest zeudela frogatu zen. Are gehiago, pertsonen ongizatea ziurtatzeko beharrezkoa zen behar baten asetzera bermatzen ahalegindu ziren, elikadurarena, alegia.

15. eranskina: Helburu didaktikoen lorpenaren ebaluazioaren emaitzak

	BAI						EZ					
	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24	0-4	5-8	9-12	13-16	17-20	21-24
1) Lanbideei eta diruari buruz dituzten aurrezagutzetan murgiltzea eta horiek aurkeztea.				X				X				
2) Lanbide bakoitzak betetzen duen funtzio soziala ezagutzea eta langileek horretan arituz gero dirua irabazten dutela ulertzea.					X		X					
3) Dirua zer den, zertarako balio duen, eta horren gabeziaren ondorioen inguruko ezagutzak eskuratzea.					X		X					
4) Ipuinean haurrentzat zentzua duen eta hurbila izan daitekeen egoera bat aurkeztuz, umeen ikaskuntza esanguratsua izatea.					X		X					
5) Koronabirusak eragindako egoera ekonomikoa, hots, langabezia interpretatzeko gaitasuna garatzea.				X				X				
6) Pobreziaren kausak nahiz ondorioak konprenitzea.				X				X				
7) Duintasunez bizi ahal izateko oinarritzko beharrak daudela ulertzea eta Giza Eskubideekiko sentikor bihurtzea.					X		X					
8) Arazo-egoera baten aurrean, elkarlanaren eta jakin-minaren bitartez ebazpen modu ezberdinak proposatzea eta horiek aurrera eramatea.					X		X					

<p>9) Enpatia, tolerantzia eta solidaritatea bezalako balioak barneratzea pobretasun egoera batean daudenen bizipenak ulertzeko eta etorkizunera begira <i>aporofobia</i>-ren aldeko jarrerak ekiditeko.</p>					X		X							
<p>10) Egunerokotasunean, ikasitako balioak (enpatia, solidaritatea, errespetua, tolerantzia...) praktikan jartzea.</p>				X					X					

16. eranskina: Eskolarako baimena

<p>Arratsalde on,</p> <p>Estibaliz Ojinaga naiz, Bilboko Hezkuntza Fakultateko (UPV/EHU) Haur Hezkuntzako laugarren mailako ikaslea, eta era berean, X ikastetxeko hezigai eta praktiketako irakasle ohia. Aurten, Gradu Amaierako Lana (GrAL) dela eta, Haur Hezkuntzatik hasita <i>aporofobia</i>, hots, pobrezia-egoera batean dauden pertsonen beldurra, ekiditea eta desagerraraztea helburu duen ikerketa lan bat aurrera eramaten ari naiz, zeinetan hori lortzeko sekuentzia didaktiko bat proposatzen dudana.</p> <p>Hori dela eta, dokumentu honen bidez, eskolari baimena eskatzen diot esku-hartze proposamen hura Haur Hezkuntzako bost urtekoen ikasle-taldean aurrera eramateko. Azken honek zortzi jarduera barne hartzen ditu, zeinen xede nagusia <i>aporofobia</i> sustatzen duten jarreraren prebentzioa izanik, hori erdiesteko bidean, zenbait helburu didaktiko proposatzen diren. Horien artean, honako hauek azpimarratuko nituzke: lanbideen eta diruaren arteko harremanaren inguruko ezagutza eskuratzea, koronabirusak eragindako langabeziaren berri jasotzea eta bi kontzeptu horiek zer diren ulertzea, pobrezia-aren kausak nahiz ondorioak konprenitzea, duintasunez bizi ahal izateko oinarritzeko beharrak daudela ulertzea eta umeak Giza Eskubideekiko sentikor bihurtzea, eta empatia, tolerantzia eta solidaritatea bezalako balioak barneratzea pobretasun egoera batean dauden bizipenak konprenitzeko eta etorkizunera begira <i>aporofobia</i>-ren aldeko jarrerak ekiditeko.</p> <p>Praxia eskola orduetan egingo da eta guztira, zortzi eguneko iraupena edukiko du. Horren ardatz nagusia Intermón-Oxfam erakundeak eta Pobreza Cero estatu-mailako mugimenduak sortutako <i>Marta pozik dago</i> ipuina oin hartuta asmatutako <i>Anttonen kezka</i> kontakizuna izango da. Horretan, protagonista bost urteko haur bat da, Antton izenekoa eta Bilbon bizi dena. Bera oso triste dago bere</p>	<p>Buenas tardes,</p> <p>Soy Estibaliz Ojinaga, alumna de cuarto curso de Educación Infantil en la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU), y asimismo, antigua alumna y profesora en prácticas del colegio X. Este año, debido a la realización del Trabajo de Fin de Grado (TFG), estoy llevando a cabo una investigación en la cual se presenta una secuencia didáctica con el objetivo de evitar y eliminar desde Educación Infantil la <i>aporofobia</i>, es decir, el miedo a las personas que se encuentran en una situación de pobreza.</p> <p>Es por ese motivo que, mediante el presente documento, solicito permiso al colegio para llevar a cabo en la clase de Educación Infantil de cinco años dicha propuesta de intervención. Esta última consta de ocho actividades, las cuales tienen como finalidad principal la prevención de las actitudes que promueven la <i>aporofobia</i>. Para ello, se proponen diferentes objetivos didácticos, entre los cuales resaltaría los siguientes: desarrollar conocimientos sobre la relación entre los oficios y el dinero, recibir información sobre el paro causado por el coronavirus y entender qué quieren decir esos dos conceptos, comprender las causas y las consecuencias de la pobreza, entender que para poder vivir con dignidad tenemos unas necesidades básicas y ser más sensibles en cuanto a los Derechos Humanos, e interiorizar valores como la empatía, la tolerancia y la solidaridad para entender las vivencias que se pueden tener en una situación de pobreza y para evitar conductas a favor de la <i>aporofobia</i> de cara a un futuro.</p> <p>La praxis se llevará a cabo en horario escolar y en total, tendrá una duración de ocho días. El núcleo de dicha secuencia didáctica es <i>La preocupación de Antton</i>, un relato creado a partir del cuento llamado <i>Marta está contenta</i> inventado por la organización Intermón-Oxfam y el movimiento a nivel estatal Pobreza Cero. En dicha narración, el protagonista es un niño de cinco años llamado Antton, el cual vive en Bilbao</p>
---	--

<p>gurasoek koronabirusagatik taberna itxi behar izan dutelako eta orain dirurik irabazten ez dutelako. Istorioan zehar, ikasleak entzuleak ez ezik, parte-hartzaileak ere izango dira, euren bizipenak nahiz jakintzak plazaratuz. Gainera, behin Anttonen kezka berri jasota, haurrak protagonistaren lagun minarekin, Araitzekin, harremanetan jarriko dira. Honek Antton nola lagundu ez dakiela esan eta hezigaiei haiei zer bururatzen zaien galdetuko die talde handian. Haur guztien erantzunak entzun ondoren, berari zer okurritu zaion azalduko die eta umeak eurak izango dira bere proposamena onartu nahi duten edo ez erabakiko dutenak. Araitzek Anttoni haien objekturik gogokoena dituen kutxa bat bidaltzea proposatuko du, ez dela zertan zerbait garestia izan eta garrantzitsuena haien zati inportantea izatea dela azpimarratuz (adib. marrazki bat, jostailu bat, pelutxe bat, argazki bat...).</p> <p>Amaitzeko, hasierako ebaluazioa ez ezik, bitarteko eta amaierako ebaluazioak ere egingo dira ikerketa honetan, eta guztien kasuan, jasotako datuen pribatutasuna zainduko da. Beste hitzez, ebaluazioetatik jasotako emaitzak erabat anonimoak izan eta bakarrik esku-hartze didaktikoaren eraginkortasuna neurtzeko erabiliko dira. Orobat, ikasleek askatasunez erabakiko dute zein neurritan parte hartu nahi duten, nahiz eta zenbat eta haur gehiago parte hartu, orduan eta lagungarriagoa izango den ikerketa abian jartzeko.</p> <p>Honenbestez, eskolari eskertuko nioke sekuentzia didaktiko hura Haur Hezkuntzako bost urtekoen gelan aurrera eramateko baimena ematea.</p> <p>Aldez aurretik eskerrik asko,</p> <p>Estibaliz Ojinaga.</p>	<p>y explica como sus padres han tenido que cerrar la taberna debido al coronavirus y que por ello, no ganan dinero.</p> <p>Durante la historia, además de oyentes, los alumnos y las alumnas van a participar constantemente presentando tanto sus vivencias, como sus conocimientos. Igualmente, una vez conocida la preocupación de Antton, los niños y las niñas se van a poner en contacto con Araitz, la mejor amiga de Antton. Ella les explicará que no sabe cómo ayudar a su amigo y les pedirá ayuda. Una vez se hayan escuchado las respuestas de todos los alumnos y todas las alumnas, les dirá que es lo que se le ha ocurrido a ella y los niños y las niñas serán quienes decidan si dicha propuesta se llevará a cabo. Araitz les propondrá mandar a Antton una caja con sus objetos más preciados, recalcando que no tiene por qué ser algo de gran valor económico y que lo principal es que sea importante para ellos, teniendo así un gran valor sentimental (ej. un dibujo, un juguete, un peluche, una foto...).</p> <p>Por último, además habrá una evaluación tanto al comienzo de la investigación, como mientras esta se desarrolla y en su final. En todas ellas, se cuidara la privacidad de los datos recibidos, es decir, todos los resultados obtenidos serán completamente anónimos y solo se utilizarán para medir la efectividad de la intervención didáctica. Asimismo, los alumnos y las alumnas podrán decidir con total libertad si participan o no, a pesar de que cuantos más niños y niñas participen, más favorable será a la hora de realizar la investigación.</p> <p>Por lo tanto, agradecería al colegio que me diese permiso para llevar a cabo la secuencia didáctica en la clase de Educación Infantil de cinco años.</p> <p>Gracias de antemano,</p> <p>Estibaliz Ojinaga.</p>
---	---

17. eranskina: Gurasoentzako eskaera

<p>Familia agurgarriak,</p> <p>Estibaliz Ojinaga naiz, Bilboko Hezkuntza Fakultateko (UPV/EHU) Haur Hezkuntzako laugarren mailako ikaslea, eta era berean, X ikastetxeko hezigai ohia. Aurten, Gradu Amaierako Lana (GrAL) dela eta, Haur Hezkuntzatik hasita <i>aporofobia</i>, hots, pobrezia-egoera batean dauden pertsonen beldurra, ekiditea eta desagerraraztea helburu duen ikerketa lan bat aurrera eramaten ari naiz, zeinetan hori lortzeko sekuentzia didaktiko bat proposatzen dudan.</p> <p>Azken horrek zortzi jarduera barne hartzen ditu, eta horien bidez, haurrek, lanbideen, diruaren, bien arteko harremanaren, langabeziaren, koronabirusaren, eta abarren inguruko ezagutzak partekatu eta jasoko dituzte. Dena den, sekuentzia didaktikoaren ardatz nagusia Intermón-Oxfam erakundeak eta Pobreza Cero estatu-mailako mugimenduak sortutako <i>Marta pozik dago</i> ipuina oin hartuta asmatutako <i>Anttonen kezka</i> kontakizuna izango da. Horretan, protagonista bost urteko haur bat da, Antton izenekoa eta Bilbon bizi dena. Bera oso triste dago bere gurasoek koronabirusagatik taberna itxi behar izan dutelako eta orain dirurik irabazten ez dutelako.</p> <p>Istorioan zehar, ikasleak entzuleak ez ezik, parte-hartzaileak ere izango dira, euren bizipenak nahiz jakintzak plazaratuz. Gainera, behin Anttonen kezka berri jasota, haurrak protagonistaren lagun minarekin, Araitzekin, harremanetan jarriko dira. Honek Antton nola lagundu ez dakiela esan eta hezigaiei haiei zer bururatzen zaien galdetuko die talde handian. Haur guztien erantzunak entzun ondoren, berari zer okurritu zaion azalduko die eta umeez eurek izango dira bere proposamena onartu nahi duten edo ez erabakiko dutenak. Araitzek Anttoni haien objekturik gogokoena dituen kutxa bat bidaltzea proposatuko du, ez dela zertan zerbait garestia izan eta garrantzitsuena haientzat inportantea izatea dela azpimarratuz (adib. marrazki bat, jostailu bat, pelutxe bat, argazki bat...).</p>	<p>Estimadas familias,</p> <p>Soy Estibaliz Ojinaga, alumna de cuarto curso de Educación Infantil en la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU), y asimismo, antigua alumna del colegio X. Este año, debido a la realización del Trabajo de Fin de Grado (TFG), estoy llevando a cabo una investigación en la cual se presenta una secuencia didáctica con el objetivo de evitar y eliminar desde Educación Infantil la <i>aporofobia</i>, es decir, el miedo a las personas que se encuentran en una situación de pobreza.</p> <p>Esta última contiene ocho actividades mediante las cuales los niños y niñas compartirán y recibirán conocimientos sobre temas tales como los oficios, el dinero, la relación entre ambos, el paro, el coronavirus, etcétera. En cualquier caso, el núcleo de dicha secuencia didáctica es <i>La preocupación de Antton</i>, un relato creado a partir del cuento llamado <i>Marta está contenta</i> inventado por la organización Intermón-Oxfam y el movimiento a nivel estatal Pobreza Cero. En dicha narración, el protagonista es un niño de cinco años llamado Antton, el cual vive en Bilbao y explica como sus padres han tenido que cerrar la taberna debido al coronavirus y que por ello, no ganan dinero.</p> <p>Durante la historia, además de oyentes, los alumnos y las alumnas van a participar constantemente presentando tanto sus vivencias como sus conocimientos. Igualmente, una vez conocida la preocupación de Antton, los niños y las niñas se van a poner en contacto con Aritz, la mejor amiga de Antton. Ella les explicará que no sabe cómo ayudar a su amigo y les pedirá ayuda. Una vez se hayan escuchado las respuestas de todos los alumnos y todas las alumnas, les dirá que es lo que se le ha ocurrido a ella y los niños y las niñas serán quienes decidan si dicha propuesta se llevará a cabo. Aritz les propondrá mandar a Antton una caja con sus objetos más preciados, recalcando que no tiene por qué ser algo de gran valor económico y que lo principal es que sea importante para</p>
---	---

<p>Ipuina 2020ko abenduaren 1ean kontatuko diet, eta horregatik, haiek horretan parte hartu baino lehen, jakinaren ganean jarri nahi zaituztet. Horrez gain, mezu hau bidaltzen dizuet umeek eramaten dituzten ondasunak abenduaren 8an eramane eta 15ean bueltan jasoko dituztela jakin dezazuen. Astearte horretan, kutxa gelara eramango dut eta bertan gutun bat egongo da, zeinetan protagonistak bere gurasoekin lan egiten hasi direla eta orain poz-pozik dagoela kontatzen duen. Horrez gain, jadanik bere kezka ebatzi denez, orain bere egoeran dauden haurrak laguntzera animatuko dituhaurrak.</p> <p>Beraz, asteartean eramaten dituzten objektuak hurrengo astean berreskuratuko dituzte. Hori bai, oso garrantzitsua da umeek hura hautatzen dutenean, objektua itzuliko zaiela ez jakitea.</p> <p>Aldez aurretik eskerrik asko,</p> <p>Estibaliz Ojinaga.</p>	<p>ellos, teniendo así un gran valor sentimental (ej. un dibujo, un juguete, un peluche, una foto...).</p> <p>Les contaré el cuento el 1 de diciembre de 2020, y por ello, antes de que tomen parte en dicha propuesta, quería ponerlos en sobre aviso. A su vez, os envié este mensaje para notificaros que los bienes que lleven los niños y las niñas a clase serán recogidos el 8 de diciembre y serán devueltos el 15 de diciembre. Ese mismo martes, llevaré la caja a clase y en ella encontrarán una carta, en la que el protagonista les explicará que sus padres han vuelto a trabajar de nuevo y que por ello está muy feliz. Además, como su preocupación ya se ha solucionado, animará a los niños y a las niñas a que ayuden a otros niños y niñas que estén en la situación que él ha estado.</p> <p>Por lo tanto, los objetos que lleven el martes se les devolverán la siguiente semana. Eso sí, es muy importante que cuando los niños elijan su objeto más preciado no sepan que se les devolverá.</p> <p>Gracias de antemano,</p> <p>Estibaliz Ojinaga.</p>
--	---